

erdiko kaira

Willis Drummond

«Ahal bagenu bi akorderekin egingo genituzke kantak»

Hilabetea ere ez da Willis Drummondetik disko berria kaleratu zuenetik. Bigarrena da, *Anthology* izeneko lehen lana kaleratu eta bi urtez kontzertuz kontzertu ibili ondoren. Taldearen izena aukeratu dute oraingoan izenburutzat. Ez alferrik, diotenez, “benetako Willis Drummond” baita disko honetan entzun daitekeena.

IÑIGO ASTIZ

Argazkiak: Lander Arbelaitz

TOPIKO BAT DA. Taldekideek aitortzen dutenez, inozoa irudi lezake, horregatik, musika taldea familia bezalakoa dela esatea. Ez hainbeste, ordea, Willis Drummonden kasuan. Etxe berean esnatu, jangela berean bazkaldu, eta teilatu beraren pean egiten dute lo lau taldekideetako hiruk. Bertan dute entsegu lokala ere. Lekorne herrian (Lapurdi). Gasteizko Jimmy Jazz aretoan egin genuen bat haiekin, ordea, soinu probak bukatu, eta kontzertua hasteko bi ordu falta zituztela. Rafa Rodrigo eta Jurgi Ekiza gitarra joleek erantzun zieten galderei.

Hurbil dituzue oraintxe bertan, txanponaren bi aldeak. Diskoa kaleratu berri duzue, eta kontzertua hasteko bi ordu inguru falta dituzue. Nola bizi dituzue bi plano horiek?

Abestiak zuzenekoetan pentsatuz egiten ditugu. Elkarrekin jotzeko egiten ditugu beti gauzak, eta zuzeneko giro eta indar hori saiatzeko gara atxikitzen diskoan ere. Ez dugu desberdintasun handirik egiten zuzenekoaren eta diskoaren artean.

45 minutukoak izaten dira zuen kontzertuak, gutxi gorabehera, zuek hala erabakita.





"Abestiak zuzenekoetan pentsatuz egiten ditugu" azaldu dute Willis Drummond taldeko kideek. Eta nabari da: goian Gasteizko Jimmy Jazz aretoan eskainitako kontzertuko argazki bat, saio bukaeran, entzuleei dena ematen.

Nahiago dugu ahalik eta intentsitaterik handiena izatea, eta neurri ona da guretzat 50 minutuko kontzertuarena. Jendea ez da aspertzen, eta hasieratik intentsitate osoan hasi behar izaten da hala arituta.

Eta soinu hori bilatu duzue diskorako ere.

Abestiak ez genituen denok elkarrekin eta zuzenean grabatu, baina saiatu gara gure zuzeneko soinutik ez gehiegi urruntzen. Efektu hori atxikitzeke, ez dugu superproduktziorik egin nahi izan, kantei mila gitarra eta mila ahots gehituz. Helburua ez zen diskoa ezinezko soinu batekin ateratzea.

Bonberenean egin dituzue grabaketak.

Bai, parteka. Han egin genituen musika guztiak, Karlos Osinagarekin [Lisabö]. Han izan ginen grabazio denbora guztian, gainera, han lo eginez, han bazkalduz... Inportantea da batzuetan etxetik ateratzea. Kontuan izan, gainera, taldeko hiru kide elkarrekin bizi garela etxe berean, eta han bertan daukagula entsegu lokala. Posible zen grabazioak bertan egitea, baina Tolosara joatea erabaki genuen. Exotismo bilado. Ahotsak, bai, gure etxean grabatu genituen.

Eta nola bizi duzue musika eta musikaz kanpoko bizitza elkarrekin egitea? Zaila al da mugak jartzea?

"Nahiago dugu ahalik eta intentsitaterik handiena izatea, eta neurri ona da guretzat 50 minutuko kontzertuarena. Horrela, jendea ez da aspertzen"

Ez hainbeste. Ez du arazorik sortu, eta, justuki elkarrekin bizi bagara, biziaren berikusmoldea dugulako da, eta musika da ikusmolde horren parte handi bat. Pixka bat zozoa da, baina familia bat bezala gara. Familietan ez duzu harremanak mozterik pentsatzen. Ezin dira kendu, odola dagoelako. Musikarekin gauza berdina dugu guk. Taldea hor dagoela, eta elkarrekin musika egingo dugula jakinik, familia bat bezala ibiltzen gara etxean.

Etxeko zapatilekin entseatzen duzue, beraz.

Ez. E... egia esan... [Kar, kar, kar]. Egongelan egiten genuen lehen entsegua eta hor bai, etxean bertan geundenez, hala egiten genuen batzuetan. Etxe atzean daukagu orain lokala, ordea, eta belarrean ibiltzera behartuak gara hara joateko; eta, beraz, baita zapatak aldatzera ere.

Bidehuts kolektiboarekin kaleratu duzue diskoa. Nolakoa izan da esperientzia?

Duela bi urte atera genuen lana ere [Anthology] gure kontu egin genuen, eta bigarren diskoa prestatzen hasi ginenean, berdina egitea pentsatu genuen. Bagenekien, gainera, Txapekin [Karlos Osinaga] grabatu nahi genuela, laguna baitugu. Hortik hasi zen dena, eta grabaketa hurbildu zenean, Bidehutsekin atera genezakeela proposatu ziguten, hau da,

guk geuk ateratzea, baina Bidehutsekin. Bakoitzak berea egiten du, eta serioa da, baina ez da profesionalismo hutsean erortzen. Ez da estatus bat lortzeko egiten den zerbait, diskoetxe bat badugula eta halakoak esateko. Bizitzan ez ditugu estatusak maite, eta musikan ere ez. Hori zuen ona Bidehutsekin kaleratzeak: gurea egin ahal izatea, baina azpiegitura eta plataforma batekin, eta profesionalismoaren akatsetan erori gabe.

Gero eta talde gehiagok hartzen du auto-ekoizpenaren bidea. Badirudi hemendik aurrera, diskoak diskoetxeekin aterako dituzten taldeei egin beharko zaiela beren hautuari buruzko galdera, eta ez alderantziz.

Egia da, bai. 1990eko hamarkada ingurura arte, produktoreak zeuden, jendearen bila zebiltzanak, talde onen bila, haiei lagundu eta kalera ateratzeko. *Operación Triunfo* eta halakoekin, sistemak lortu du produktutako taldeek, berak sortutako modaren araberrako kantuak egitea. Inolako arriskurik gabe egiten ditu gauzak. Normala da, beraz, talde bakoitzak bere kontutik aritu nahi izatea, eta uste dut, gainera, ona dela.

Lerroz beteta daude zuen kante-tako hitzak, eta bi lerro ageri dira azaleko irudian ere. Zuzena bata, okertuz doana bestea.

Lerroak dira, ene ustez, metaforarik onena azaltzeko jendea nola bizi den. Lerro zuzenak daude, bakoitza bere bizitza eginez, bata bestearen ondoan beti. Bizitzan, gainera, eta horren aurka goaz gu, jendeak maiteago du pixka bat pozik egotea [airean lerro zuzen bat marrastan du], baina konstanteki, batzuetan oso pozik, eta besteetan oso triste egotea baino [gora eta behera etengabe dabilen lerro bat marrastan du orain hatzaz]. Behar bada hori ez da ona buruarentzat, baina gure helburua ez da halako lerro zuzen bat lortzea, ahalik eta altuena dela ere.



Sutagar
20 URTE

**20. URTEBETETZE
OSPAKIZUN BIRA**

OTSAILAK 28 LEKUNBERRI MUXU
Gauerdiko 24:00etan, 12€ aurretik / 15€ leihatilan
• Aurre salmenta: Ilargi taberna (Lekunberri), Peritza taberna (Leitza), Lekuona taberna (Etxarri Aranatz) eta Zumbeltz musika denda (Tolosa).
• Online aurre salmenta: www.ticktackticket.com

MARTXOAK 6 GASTEIZ JIMMY JAZZ
Gauerdiko 21:00etan, 12€ aurretik / 15€ leihatilan
• Aurre salmenta: Elektra Store, Zuloa Irudiak eta Flash Flash (Gasteiz).
• Online aurre salmenta: www.ticktackticket.com

MARTXOAK 7 ELIZONDO LUR
Gauerdiko 23:30etan, 12€ aurretik / 15€ leihatilan
• Aurre salmenta: Antxitonea, Txokoto, Intza, Kortarizal (Elizondo) eta Atxaspi (Lesaka).
• Online aurre salmenta: www.ticktackticket.com

MARTXOAK 28 IGORRE PLAZA

kontratazioa: 619 11 69 74
sutagar.com



Euren kabuz argitaratu dute disko berria Willis Drummond taldekoek, baina Bidehuts plataformaren babesarekin. Horrela, lanak serio egitea lortu dute, baina profesionalismo hutsean erori gabe.

Arriskatu egin behar, beraz?

Bai. Halakoetan, beheraka zoaz batzuetan, berriro igoko zaren jakin gabe.

Esango nuke, halere, bigarren lan hau grabatzen hasterako bazenkitela zer disko atera nahi zenuten.

Ez. Ideia lauzpabost kantako diskoa egitea zen. Denak lerroen gaiaren ingurukoak. Azkenean, abestiak grabatzez bukatu, eta kanta instrumental zahar bat grabatu genuen, probatzeagatik, eta aurrez grabatutako kanta bat ere sartu genuen... Ongi lotzen ziren kanta haiek besteekin, eta sartu egin genituen. *Hauztura* abestia ere, lehen grabaketa sesioa amaituta sortu genuen.

Intuzioa eta inprobisazioari lekuri kendu gabe, baina inpresioa nuen kantekin nora jo nahi zenuten hasieratik zenekitela.

Hala izan bada, ez dut uste horregatik izan denik, baizik eta, agian, gure artean gurea sortzea lortu dugulako. Orain laurok elkarrekin egiten ditugu kantak. Lehen diskoan Xan [Bidegain] eta ni [Jurgi Ekiza] ginen batez ere abestiak egi-

ten genituenak. Homogeneoago gelditu da, horregatik, bigarrena. Abesti sinpleagoak egiten saiatu gara, bestalde. Talde onek egiten dituzte abesti oso sinpleak eta batzuetan erre-zeta berberarekin, eta uste dut hori dela talenturik handiena; gauza onak eta sinpleak egitea. Guk, bistan denez, ez dugu lortzen oraindik hori egiterik. Ahal bagenu bi akorderekin egingo genituzke kantak, baina hori ez da erraza, eta behartuak gara gauzak gehiago nahastera.

Willis Drummond da taldearen izena, eta Willis Drummond diskoarena. Ez dira, halere, Willis Drummond bera.

Taldea sortu zen garaiko kasik talde berdina da oraingoa ere, baina lehen diskoan berri-berria zen. Hor zegoen oraingo taldea, baina lehenago lau edo bost pertsona ginen elkarrekin jotzen, bakoitzak bere abesti eta eraginak zituela, eta elkartzean denak nahasiz. Orain, aldiz, lortu dugu benetan Willis Drummond izatea.

Ipar Euskal Herrian bizi zarete, eta han sortzen duzue musika. Gaur Hegoaldera etorri zarete, eta maiz, egiten duzue bide hori. Presente dago muga hori musikari dagokionean ere, ezta?

Nire ustez bai. Nahiz eta ez nahi, muga hori sartuta dute buruan gehienek. Irungo lagun bati Baionan kontzertu on bat dagoela esanez gero, urrun dagoela esango dizu, eta Donostiara joatea proposatuz gero, aldiz, gutxiago kostatuko zaio, nahiz eta distantzia gutxi gorabehera berdina izan. Berdina gertatzen zaio Ipar Euskal Herriko jendeari ere. Muga hori ez da burutik erraz kentzen.

Anthology kaleratu zenutenean irratian egin zizueten elkarrizketa batean entzun nizuen Ipar Euskal Herriko izateak, agian, lagundu egin dizuela Hego Euskal Herrian ezagunagoak izaten.

Ez dakit. Batzuetan, exotismo pixka bat badago hor, baina talde asko dago han –Ipar Euskal Herrian–, eta denak ez dira hona –Hego Euskal Herria– etortzen. Ez dakit, beraz, lagundu ote digun edo ez. ■

www.argaia.com/multimedia
helbidean, elkarrizketaren pasarteak bideoan.